



URTEKO  
MEMORIA  
**2012**



URTEKO  
MEMORIA  
**2012**

# AURKIBIDEA

1. AGURRA	3
2. URAREN EUSKAL AGENTZIA-URA	5
2.1 Eginkizunak	9
2.2 Xedea	12
2.3 Ikuspegia	14
2.4 Balioak	16
3. GOBERNU, KUDEAKETA ETA AHOLKULARITZA ORGANUAK	17
3.1 Kudeaketa organoak	20
3.1.1 Eremuko zuzendaritzak	20
3.1.2 Arroen Bulegoak	21
4. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUAK	22
4.1 Plantilla	23
4.2 URaren aurrekontuak	24
4.2.1 Ustiapen-aurrekontua	24
4.2.2 Kapitalaren aurrekontua	24
5. JABARI PUBLIKOAREN KUDEAKETA	25
5.1 Hobetzeko jarduketak	27
5.1.1 Lasarteko Laborategia berrazartzea	28
5.1.2 Espediente Kudeatzailearen ezarpena	28
5.1.3 Landako tresna informatikoak ezartzea	31
5.1.4 Plan Hidrologikoaren araudia	31
5.1.5 Prozeduren eskuliburua	32
5.1.6 Itsasotik lehorrerako isurketen dekretuari buruzko proiektua onartzea	33
5.1.7 Hornidura eta Saneamenduaren Esparru Erregelamendua	34
5.1.8 Ibilguak mantentzeko zerbitzuaren izapidetze bakarra	35
5.2 Baimen eta emakiden arloa	37
5.2.1 Obra-baimenak	37
5.2.2 Ur aprobetxamenduak	42
5.3 Ibilguak mantentzeko zerbitzua	45
5.4 Isurketen arloa	50
5.4.1 Obra-baimenak	50
5.4.2 Ingurumeneko baimen bateratua	51
5.4.3 Isurketak kontrolatzeko kanoa	52
5.5 Ikuskaritza arloa eta laborategia	54
5.5.1 Ikuskaritza-arloa	54
5.5.2 Laborategia	57

<b>6. PLANGINTZA ETA LANAK</b>	<b>58</b>
6.1 Plangintza Hidrologikoa	60
6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoa	60
6.1.2 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak	64
6.1.3 Informazio-sistemak	67
6.1.4 Diru-laguntzen kudeaketa eta lankidetzaz hitzarmenak	68
6.2 Ebaluazioa	72
6.3 Uholdeei aurrera hartzea	76
6.4 Lanak	81
<b>7. ERAKUNDE HARREMANAK ETA KOMUNIKAZIOA</b>	<b>84</b>
7.1 URA-Uraren Euskal Agentziaren Komunikazioa	87
7.2 Sentsibilizazio eta hezkuntza ekintzak	89
7.2.1 On Line ikastaroa: Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta sentsibilizazioa	89
7.2.2 Ibaiari buruzko ikasgelak eta dibulgaziozko hitzaldiak	90
7.2.3 Diru-laguntzak	90
7.3 Ekitaldi eta jardunaldi teknikoak	92
7.3.1 Uraren Mundu Eguna 2012	92
7.3.2 Urumena ibaiaren arroan uholdeei aurrea hartzeko erakunde arteko batzordea	94
7.3.3 URAREN Ekitaldea	95
7.3.4 Zadorrako Sistemaren Jarraipenerako Erakunde Arteko Mahaia	95
7.3.5 Guratrans proiektua	96
7.3.6 EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko jarraipen- eta koordinazio-batzordearen hainbat bilera egin dira	97
7.3.7 Uratloiak, URA-Uraren Euskal Agentziak sustaturako kirol-hitzordua	99
7.3.8 CONAMA 2012	100
7.3.9 Euskadiko Urei buruzko informazio-sistemen aurkezpena	101
7.3.10 Dibulgazio-jardunaldia: Zebra muskuilua EAEn	102
7.4 Nazioarteko Lankidetzaz	104
7.4.1 URAREN parte-hartzea Europa eta mundu osoko Eskualdeetako Gobernuen Sareetan (Encore eta ngr4SD)	104
7.4.2 PNUD eta ART/PNUD: Nazio Batuen Garapenerako Programak	106
7.4.3 Green Week	108
7.4.4 Río + 20	108



Agurra

**A**diskide maiteok:

Honen bitartez URA Uraren Euskal Agentziaren 2011 aldiko memoria aurkezten dizuet, urte hauetan egindako lan eta ekintza nagusiak biltzen dituen. URA Eusko Jaurlaritzaren erakunde bat da, Euskadiko ur-politika kudeatzeaz arduratzen dena Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago, eta Foru Aldundiek ere parte hartzen dute haren gobernu organoan.

Urte hauetan, Agentzia erreferentziazko administrazio bihurtu da dagoeneko EAEko uren arloan, eta, ildo horretan, politika modernoa bultzatu du, arazo nagusiak konpontzeko ingurumena zainduz eta parte hartzean oinarrituz.

URA Agentzian dihardugunok memoria hau irakurtzera gonbidatu nahi zaitugu; behin irakurketa amaiturik, bidali ieazkiguzu, mesedez, zure iritzi eta iradokizunak, ezbairik gabe gure eguneroko kudeaketa hobetzeko lagungarri izango direlako.

Iñigo Ansola Kareaga.  
Zuzendari Nagusia





URAREN EUSKAL  
AGENTZIA - URA

**URA** Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Agentzia Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bitartez sortu zen, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

URA sortu da Europar Batasunaren Uraren Esparru Zuzentarauaren eskakizunak betetzeko helburuarekin, hau da, 2015eko abenduaren 31a baino lehen azaleko zein lurpeko ur-masa guztiek egoera onean egon behar dutela aintzat hartuta. Hori guztia Uraren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentaria bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren administrazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakabanaketa saihestuz.





Uraren Euskal Agentziaren jardun-ildo nagusiek honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- EAEko ur-masen egoera ekologikoa hobetzea.
- Hornidura unibertsala lortzea, behar adinako kantitatean eta kalitatean.
- EAEren saneamendu-planak gauzatzea.
- Ura eraginkortasunez administratzea, behar adinako masa kritikoa duten ur-erakunde kudeatzaileen jarduna indartuz.
- Ur-baliabideak ikertzea eta era iraunkorrean aprobetxatzea.
- Uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko jardunak egitea.
- Uraren eremuan berrikuntza teknologikoa sustatu eta bultzatzea.
- Informazioa eta prestakuntza, uraren kudeaketan inplikaturako giza baliabideen maila igotzeko.
- Nazioarteko ekimenetan laguntzea, uren arloan milurtekoaren helburuak lortzeko.



# 2.1. Eginkizunak

## 2.1. Eginkizunak

Agentziak 1/2006 Legearen 7. artikuluan jasotako eginkizunak betetzen ditu, hau da:

- Lege horretan plangintza hidrologikoan jasotako tresnak egitea eta Jaurlaritzaren esku uztea, onartu, aldatu edo izapide daitezen eskumeneko agintarien aurrean.
- Erkidego arteko arroen estatu-plangintza hidrologikoan parte hartzea, araudi erregulatzailarekin bat etorriz.
- Jabari publiko hidraulikoa babesteko esku-hartzea, bereziki emakida eta baimen administratiboak emanez, baina baita jabari publiko hidraulikoa zainduz, ikuskatuz eta, era berean, araudi erregulatzaila hausten dutenak zehatuz.
- Bere jardun-eremuei dagozkien gaien xedapen orokorreko buruzko proiektuak egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko agintariei bidaltzea.
- Estatuko Administrazioak transferitutako, eskuordetutako edo agindutako eskumenak.
- Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- Ur Erregistro Orokorraren antolamendu eta funtzionamendua.
- Eremu Babestuen Erregistroaren antolamendu eta funtzionamendua.
- Kanon edo zergen aplikazioari buruzko azterlan eta txostena, indarreko araudiarekin bat etorriz.
- Indarreko legerian urei dagokienez ezarritako zergak kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea.
- Plan orokor, arau subsidiario, plan partzial edota plan bereziei buruzko txosten loteslea ematea, hasierako onarpenaren ostean. Txosten espezifikoak da, udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babes eta erabileraren arteko harremanari buruzkoa, eta ez dio kalterik egiten sektore- edota ingurumen-arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste lege batzuek ezarritakoari. Txostena aldekoa izango da baldin eta bi hilabeteko epean ematen eta jakinarazten ez bada.

- Jaurlaritzari uholdeak gerta daitezkeen eremuetan beharrezkotzat jotzen diren erabilera-mugak ezar ditzala proposatzea, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.
- Lehorretik itsasora isurtzeko baimena ematea.
- Itsas-lehorreko zortasuneko eremuetarako baimena ematea, eremu horiek zaindu eta ikuskatzea eta dagozkion zehapenak ematea.
- Bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten diru-laguntzak ematea.
- Lege eta erregelamenduek esleitzen dizkioten gainerako eginkizun guztiak, hornidurako, saneamenduko eta ureztatzeko politikari dagokionez bereziki, baita kudeaketa-organo eta erabiltzaile-komunitateen gaineko kontrola eta esleitzen dizkioten gainerako guztiak ere.
- Jabari publiko hidraulikoaren babesa eta kontserbazioa bermatzea, gai horretan eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta.

	URA	Foru Aldundiak	Toki Admin.
Plangintza			
Baimenak eta emakidak			
Zaintza eta zehapena			
Kanonak eta tasak			
Interes orokorreko obrak			
Lurralde Historikoetako Interesgarriak			
Hornidura eta sanfamendua			



# 2.2.

## Xedea

## 2.2. Xedea

- **A**gentziaren xedea da Euskadin uraren politika aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzaren tresna nagusia izatea, Uraren Esparru Zuzentarauarekin bat etorriz. Horrek esan nahi du ur masen kalitatearen, kantitatearen eta egoera ekologiko egokiaren alde egitea, eraginkortasunez eta gainerako administrazioekin eta uraren erabiltzaile guztiekin elkarlanean.
- EAEko herritar guztiek ura behar adinako kantitatean eta kalitatean eskuragarri dutela bermatu behar du Agentziak, ingurumena zaindu eta errespetatzen duen esparru batean.
- Uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko ekintzak sustatu behar ditu.

A photograph of a waterfall in a lush, green forest. The water flows over moss-covered rocks and falls into a pool of water at the bottom. The scene is framed by a blue circular graphic on the right side.


# 2.3.

## Ikuspegia

## 2.3. Ikuspegia

- **P**olitikak ezartzea: ura baliabide publikoa dela aintzat hartuz, uraren kudeaketa iraunkorra eginez, eta, une oro, premia handiena duten tokiekiko bidezko elkartasuna sustatuz.
- Zerbitzu-ematea: erabiltzaileenganako hurbiltasuna, bizkortasuna, gardentasuna, eraginkortasuna eta zerbitzura iristeko erraztasunak.
- Baliabide propioen kudeaketa: pertsonen garapenerako ekintzak ezartzea eta baliabide materialen kudeaketaren eraginkortasuna.
- Gizartearen alde egitea, ur baliabideari eta baliabidearen kudeaketari buruzko informazioa eta jakintza sortuz erabateko gizarte-erantzukizuneko ikuspegi batetik.



A circular frame containing a photograph of a wetland landscape. The scene shows tall, thin reeds in the foreground and middle ground, with a blue sky and a body of water in the background. The text '2.4. Balioak' is overlaid on the left side of the frame.

# 2.4. Balioak

## 2.4. Balioak

- **Prestakuntza-maila handiko profesionalen taldea.**
- Talde-lana, koordinazioa, administrazio arteko lankidetzeta, gardentasuna eta pertsonen parte-hartzea.
- Mugape hidrografikoen kudeaketa eta plangintzaren batasuna errespetatzea.
- Tratamendu eta plangintza integrala, uraren ekonomia, baliabidearen iraunkortasuna.
- Uraren kudeaketa publikoa lurraldearen antolamenduarekin eta ingurumenaren kontserbazio, babes eta berritzearekin bateragarri egitea.
- Prebentzio-politika, urak eragindako uholde eta hondamendien aurrean.
- Elkartasuna, erantzukizuna, eta uraren erabiltzaileak uraren erabilera eta kudeaketan eragindako kostuak ordaintzea.
- Jende guztiak ur-gaiei buruzko informazioa eskuragarri edukitzea.
- Ura merkatuaren legeez eta salerosketa libreaz aparteko ondasun publikoa delako iritzian oinarritutako politika.
- Hornidurako, saneamenduko eta arazketako zerbitzu publikoak eraginkortasunez eman daitezela sustatzea.



Gobernu, Kudeaketa  
Eta Aholkularitza Organoak


URA Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, 2006ko ekainaren 23an Eusko Legebiltzarrak onartutako Uraren Euskal Legeak sortua. Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago, eta 2008ko urtarrilaren 1etik Uren Zuzendaritzako partaide da. Uren Zuzendaritzak 1994tik darama jardunean, hain zuzen ere transferentzia gertatu zen uneaz geroztik. Nolanahi ere esan beharra dago URA Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere badela, arlo horretan eskumenekoak izaki agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen baitute modu paritarioan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien ordezkariak osatzen dute Administrazio Kontseilua, modu paritarioan, eta gainera, URA agentziak parte-hartze eta aholkularitzarako beste bi organo ditu.

Erabiltzaileen Batzarra, Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alorreko eskumeneko Ministerioaren, lurralde historikoe-tan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELe izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak biltzen dituen.

Uraren Kontseilua, non Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak hartzen dute parte.






# 3.1. Kudeaketa organoak

# 3.1. Kudeaketa organoak

## 3.1.1. Eremuko zuzendaritzak


Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak lau Zuzendaritzatan antolatzen dira, zuzendari nagusiaren mendean:

- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritza
- Berrikuntza eta Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritza
- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza



## 3.1.2. Arroen Bulegoak

Gainera, Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoko Arroen Bulegoa (Gasteiz).



# 44

Administrazioa  
eta Zerbitzuak



## 4.1. Plantilla



158 langilek osatzen dute Uraren Euskal Agentzia, gehienak ere, bere garaian Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikitako Uren Zuzendaritzako kideak izandakoak.

Arlo honetan 2012. urtean azpimarratu beharreko alderdi bat da URAREN Mendebaldeko Kantauriar Arroen bulegoaren egoitza aldatu dela.

KATEGORIA	2012/12/31n
Zuzendaritza Nagusia	1
Arloen Zuzendaritza-Bulego buruzagitzak	7
Teknikariak eta bitarteko agintariak	114
Administrariak	36
GUZTIRA	158

## 4.2. Uraren Aurrekontuak

### 4.2.1. Ustiapen-aurrekontua

Gastuak	2012
Langileen gastuak	7.727.247
Funtzionamenduko gastuak	7.872.602

GUZTIRA	15.599.849
---------	------------

Sarrerak	2012
EJren ustiapenerako diru-laguntzak	11.297.573
Sarrera propioak	4.302.276

GUZTIRA	15.599.849
---------	------------

### 4.2.2. Kapitalaren aurrekontua

Inbertsoia	2012
Berezko Ondasunak	18.423.987
Beste erakunde batzuetarako kudeatutako ondasunak	9.819.355
Hirugarrenei emandako diru-laguntzak	1.938.672

GUZTIRA	30.182.014
---------	------------



Jabari  
publikoaren  
kudeaketa



# 5.1.

## Hobetzeko jarduketak

## 5.1. Hobetzeko jarduketak

2012. urtean, jabari publikoa kudeatzeko arloan honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- Lasarteko laborategiak analisten lanpostuak berrezarri dira.
- Isurketen familiako Espedienteen Kudeatzailea ezarri da, Ingurumeneko Baimen Bateratuak eta Salaketak eta Kontsultak jaso gabe gelditu direlarik. Uraren kanonaren kudeaketa ezarri da. Obra, Emakida eta Isunen Arloan Espedienteen Kudeatzailea hobetu eta finkatu da.
- Ikuskatzaileentzat landa-lanerako tresna informatikoak (PDA) ezarri dira.
- Plan Hidrologikoaren Araudia adostu eta onartu da.
- Hornidura eta Saneamenduko Esparru Erregelamenduaren zirriborroa egin eta interesatu nagusiei aurkeztu eta bidali zaie ekarpenak egin dituzaten.
- Ibilguak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko izapidetze bakarra.

Jarraian, jarduketa guztiak deskribatuko dira.

## 5.1.1. Lasarteko Laborategia berrazartzea

2011. urtean, URAn laborategia izatea beharrezkoa zen, eta, izatekotan, bide-ragarria zen ala ez hausnartu ondoren, erabaki zen laborategi hori EAEko lurralde osoko isurketen laginak aztertzeke gune gisa sustatu behar zela.

Azkenean, Meritxel Legarreta eta Ana Rubio sartu ziren laborategian lan egi-tera, eta horrela lantaldea osatu zen (laborategiko teknikari bat eta hiru ana-lista).

## 5.1.2. Espediente Kudeatzailearen ezarpena

Funtsezko tresna jabari publikoa kudeatzeko espedienteak izapidetzean. Honako hauek ahalbidetuko ditu:

- URA agentziarako espedienteak izapidetzeko prozedura bakarra.
- Espediente baten edozein dokumentu edo izapide erakunde osoarentzat ikusgai jartzea.
- Izapidearen eta izapide-dokumentuen hobekuntza optimizatzea.
- Espedientearen kontrola. Epeak amaitzeagatiko abisuak sortzea.
- Espedienteen administrazio-izapideko urrats guzti-guztietan arduradunak zehaztea.
- Estatistiken eskuragarritasuna (memoria eta abar).
- Sarrera eta irteeren erregistroarekiko konexio automatikoa eta eskaneatutako dokumentuak Erregistrotik Espedienteen Kudeatzailean lekualdatzea.
- Erregistroak automatikoki sortzea: Ur-erregistroa, GIS.
- Isurketa kontrolatzeko kanona, UJP okupatzeagatiko kanona, UJP aprobetxatzeagatiko kanona eta uraren kanona bezalako lotutako bestelako izapidetzearako datuak automatikoki ateratzea.

2012ko martxoan, Isurketen Familia sartu zen ekoizpenean Espedienteen Kudeatzailean, eta bertan honako hauek zeuden eskuragarri: Isurketa-baimenen izapidetzea, horien berrikuspena eta Ur Jabari Publikora egindako isurketen jarraipena. 2012ko uztailean, Lehorretik itsasorako baimenen izapidetzea sartu zen ekoizpenean Espedienteen kudeatzailean, baimen horien berrikuspenarekin eta isurketen jarraipenarekin.

Halaber, aurrera egin da fluxugramen lanketan, erantzukizunetan eta dokumentu-motan Espedienteen kudeatzailean ekoizpenean honako familia hauek sartzeko: Isurketena, Ingurumeneko Baimen Bateratuena, Kontsultena eta Isurketen Salaketena.

Espedienteen kudeatzailearen bitartezko funtzionamenduari dagokionez, orokorrean kudeatzaile osoari eta zehazki egon dauden izapidetze batzuei eragiten dien hobekuntzaren bat egin da, hala nola:

- Itxitako izapideetako agiriak ezabatu.
- Ikuskaritza-izapideak sortu ahal izatea, aldez aurretik eskatu beharrik gabe.
- Hobekuntza egoeren kontrolean
- Hobekuntzak integrazioan Sarrera eta Irteeren Erregistroarekin
- Esparru berriak Lana eta Lan Eremuaren entitateetan
- Aldaketak Kanona sortzean (INTER barne)
- Aldaketak espedienteen aurkezpenean
- Hobekuntza txantiloietan teknikariaren izena jaso ahal izateko.

2012. urtean, uraren kanonaren familian GEX delakoan integratzeko lanei ekin zaie. Proiektua 2012ko martxoan hasi zen Uraren Euskal Agentziari uraren kanonaren kudeaketari lotutako administrazio-prozesuak automatizatu eta hobetuko dituen informazio-sistema hornitzeko. Prozesuak bederatzi hilabete iraungo dituela uste da.

2012. urtean zehar, uraren kanonaren kudeaketa egokia ahalbidetuko duten 17 prozedurak ekoizpenean sartu ziren fluxugramen lanketak, erantzukizunetan eta dokumentu-tipologian. Horretaz gain, familia honentzako modulu bereziak definitu dira, tartean: gutunen modulua, hartu-agirien kudeaketa eta kontsulta eta txostenen modulua.

2012. urtearen amaieran, %62raino aurreratu da proiektuan eta 2013ko apirilean amaitzea planteatu da.



## 5.1.3. Landako tresna informatikoak ezartzea

2012. urtearen amaieran, ikuskatzaileei PC tableta bana eman zaie, landalanean ari direla informazio bilatzen eta ikuskaritza-txostenak egiteko informazioa biltzen lagun diezaien.

Tresnak beste bi aplikazio ere baditu:

- Inbetarioko aplikazioa. Aplikazio honen bitartez honako hauek erregistratu eta inbentarioan jaso daitezke: lanak eta jarduketak, isurketa-guneak, arroko erakundearen baimena ez duten ura hartzeko baimenen ukaioak, larrialdien ondoriozko informazioa eta, gainera, ibilguen mantentze edota lehengoratzeko lanak egitea behar ahal duten ibilgu eta ertzetako guneak edo tarreak proposatu.
- Jarraipenen aplikazioa (Ikuskapen-prozedurak). Aplikazio honen helburua da ur-ikuskatzaileari laguntzea URA izapidetzen ari den edo baimena izan baina jarraipena egitea eskatzen duten administrazio-espeditteetako lan, isurketa eta emakiden ikuskaritza eta jarraipeneko txostenak egiten.

## 5.1.4. Plan Hidrologikoaren araudia

Plangintza eta Lanen Zuzendaritzarekin koordinatuta, Plan Hidrologikoaren Araudiaren idazketarako ekarpenak egin, eta KUFekin adostutako araudira onartu zen.

Plan Hidrologikoa onartu eta abenduaren 13an Uraren Kontseilu Nazionalan aurkeztu zen, Kantauri Ekialdeko Mugaperako araudi bakarrarekin.

## 5.1.5. Prozeduren eskuliburua

**U**r-jabari publikoa kudeatzeko prozeduren eskuliburua sortzeko lanekin jarraitu da. Batez ere honako honetan egin da aurrera: "UR JABRI PUBLIKOAREN ETA ITSAS-LEHORREKO BABES ZORTASUNEKO EREMUAREN INGURUKO BAIMENEN PROZEDURARI BURUZKO ESKULIBURUA".

Agiri horren azken bertsioa 2012ko uztailan idatzi zen, eta bereziki ILBZEko agintariekin berrikusi eta osatuko da behin betikoz.

Espediente guztiak izapidetzeko eskuliburua funtsezko tresna izango da, izapidetze horien irizpideak argitu eta bateratzeko.

Ikuskaritzaren eta ikuskaritzari lotutako prozeduren gidaliburua. 2012. urtean, eskuliburua eta lotutako prozedurak erakutsi zaizkie ur-arloko teknikari eta ikuskatzaileei, ezagutaraztera eman eta proposamenak eta iruzkinak jasotzeko.

2012. urtean, ur-teknikari eta -ikuskatzaileei, prozeduren eskuliburua aurkeztu zaie ezagutarazi eta proposamenak eta iruzkinak jasotzeko helburuarekin.

## 5.1.6. Itsasotik lehorrerako isurketen dekretuari buruzko proiektua onartzea

2012. urtean zehar, Lehorretik itsasorako isurketen Dekretua izapidetzen jarraitu da, eta honako hauek izan dira unerik garrantzitsuenak:

- Uztailaren 2an, 6 alegazio jaso ostean, horiei buruzko memoria-txosten egin zen (2012ko uztailak 2). Ondoren, Dekretu Proiektua aldatu eta onartutako proposamenak txertatu ziren.
- Urriaren 17an, Euskadiko Uraren Kontseiluaren Txotena aurkeztu zen.
- Azaroaren 8an, Autonomia Garapeneko Zuzendaritzaren Txostena aurkeztu zen.
- Azaroaren 13an, berriz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Txostena aurkeztu zen.
- Eta abenduaren 10ean, Zerga Administrazioaren Zuzendaritzaren Txostena aurkeztu zen

URAREN Administrazio Kontseiluaren eta Erabiltzaileen Batzordearen aurrean aurkeztu Dekretu Proiektu hori, eta 2012. urtearen amaieran, COJUA-ABAJU batzordearen txostenaren zain dago.

## 5.1.7. Hornidura eta Saneamenduaren Esparru Erregelamendua

Urteko lehen sei hilekoan, eta testuaren berrikuspen juridikoaren ondoren, amaitutzat jo zen Erregelamenduaren lehen zirriborroa.

Ekainaren 27an aurkeztu zen zirriborro hori, kudeatzaile nagusien aurrean, hots:

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
- Añarbeko Urak
- Txingudiko Zerbitzuak
- Gipuzkoako Ur Kontsorzioa
- AMVISA – Gasteizko Urak
- Busturialdeako Ur Partzuergoa
- CAKU Aiarako Partzuergoa
- Arabar Errioxako Urkidetza

Abuztuaren 2an, aldiz, interesatutako administrazio eta erakunde guztiei bidali zitzairen erregelamenduaren zirriborroa, ekarpenak egin zitzaite

## 5.1.8. Ibilguak mantentzeko zerbitzuaren izapidetze bakarra

**A**banduaren hasieran honako lan hauen zerbitzu-kontratuaren prozedura ireki bidezko kontratazio publikoa argitaratu zen: "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UBIDE, IBAIERTZ ETA ERREKATAKO MANTENTZE- ZAINTE- SUSPERTZE- ERABERRITZE- ETA INGURUMEN-HOBEKUNTZAKO LANAK". 3 lotetan zatitutako kontratua da (arroko bana), eta 2 urte luza daitezkeen 2 urterako izango da.

3 lotetan zatitutako kontratu bakar baten lizitazioarekin (gaur egun 3 kontratu ezberdin dira, plegu eta epe ezberdinekoak), plegu bakarrak eta epe berberak izatea lortu nahi da, horrela kontratazioaren izapidetzea erraztu eta zerbitzuan garatu beharreko gai nagusietarako irizpide berberak hartzea ahalbidetuko baita:

- Jarduketa bereziak edo proiektuak
- Programatutako mantentze-jarduketak
- Landaketak
- Espezie inbaditzaileak kentzea
- Ezustekoak



**5.2.**

**Baimen eta  
emakiden  
arloan**

## 5.2. Baimen eta emakiden arloa

2012. urtean zehar, baimen eta emakiden arloko 5 koordinazio-bilera egin dira, eta horietako batzuk monografikoak izan dira (Adibidez, Prozeduren eskuliburuari buruzko monografikoa).

### 5.2.1. Obra-baimenak

- Lan-baimenak UJPan eta zaintza-aldean

Lan-baimenak izapidetzearen helburu nagusia zera da: jabari publikoan edo horren ingurunean (zaintza- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egikaritzeko baldintzak ezartzea, ur-masak honda daitezen saihestuz eta hobe daitezen ahaleginduz.

Arroen bulegoetako arduradunek baimenak izapidetzen dituzte, eta kontrola eta jarraipena egiten dute administrazio eta partikularrek jabari publiko hidraulikoan eta ibilgu-zaintzako eta zortasuneko eremuetan egindako jardun eta obrei dagokienez.

2012. urtean lanak egiteko 538 espediente hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar) eta 563 ebatzi.

Gainera, partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako 189 kontsultari eman zaie erantzuna, aldez aurretik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

Gainera, arroen bulegoek guztira 53 hirigintza-txosten egin dituzte, beste administrazio batzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzunez edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzunez, eta 17 ebatzi dira.

2012. urtean, Zadorra Sistemako urtegi-tako nabigazioaren jarraipena egin da, eta udaran bereziki Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak zaindu dira.

Mediterraneoko arroetako bulegoak nabigazioko 84 erantzukizun-aitorpenen jarraipena egin du, eta beste 5 Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoan.

Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako 88 salaketa jaso dira guztira.

Indarreko legegintza-esparruaren barruan, 29 zehapen-espeditente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

Zeregin horiei dagokienez esan beharra dago ez dela batere erraza bulego horietako langileek hirugarrenei arreta eta aholku emateko egindako lanak kuantifikatzea, baina argi dago oso ugariak izan direla.

#### • Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak baimenak izapidetzen dituzte eta administrazio eta partikularrek jabariari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuei dagokienez egindako lana eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten dute. Gainera, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostenak ematen dute.




2012. urtean 93 espediente hasi eta 45 ebatzi dira. Gainera, partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako 195 kontsulta-espediente eta txosten-eskera hasi eta 76ri eman zaie erantzuna, aldez aurretik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.


Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako 43 salaketa jaso dira guztira.

Gainera, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, 3 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik edota itsas-lehorreko jabariari eta zerranda elkartuei eragiteagatik.


Obretarako baimenak (2012)



UJP




ILZ



- Ur Jabari Publikoa okupatzeagatik kanona

Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko. 2013. urtean, 2012ko ekitaldiari dagokion okupazio-kanonagatik 123.416 € bilduko direla aurreikusten da.

Okupazio-kanonaren bilakaera



## 5.2.2. Ur aprobetxamenduak

2012. urtean Emakida Arloaren 3 bilera egin dira.

Ur-aprobetxamenduak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikotik ura hartzeko zer baldintza bete behar diren ezartzea, lehentasun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihestuz.


Mendebaldeko Kantauriar eta Ekialdeko Arroen Bulegoek (Erkidego Barneko Arroetan) ur-aprobetxamenduen espedienteak izapidetzen eta horien jarraipena eta kontrola egiten jarduten dute. 2012. urtean ur-aprobetxamenduen inguruko 102 espediente berri hasi dira.

Bestalde, epealdi berean 44 erregularizatzeko-espeditente hasi dira titulartasuna aldatu, ezaugarriak aldatu edo aprobetxamendua iraungitzeko.

Agentziari ur-aprobetxamenduen inguruan egindako kontsulten ondorioz, 43 espediente abiarazi dira epealdi honetan.

Azkenik, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, ez da ur-aprobetxamenduen inguruko zehapen-espeditenterik abiatu.

**Aprobetxamenduak**



• Uraren kanona

EAEen uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek plangintza hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.

Zerga horrek uraren egiazko edo ustezko kontsumoa zergapetzen du EAEen, uraren erabilerak ingurumenari eragin ahal diezaiokeen eraginagatik. Hain zuzen ere, honako hauei ezarriko zaie kanona:


- Hirugarren batzuek erabiltzaileari zuzkitutako ur-kontsumoari.
- Lurrazaleko uretatik, lurpekoetatik, euri-uretatik edo isurketa-uretatik, itsasoko uretatik edo beste edozein jatorritako uretatik erabiltzaileek berek zuzenean hartutako uraren kontsumoari.
- Uraren edozein kontsumo edo erabilerari, zeinahi delarik ere uraren jatorria edo hornikuntza-iturria, era-bilera produktibo bati loturik egon zein ez, kontagailu homologatu bidez neurtuta egon zein ez, fakturatuta egon zein ez.

Uraren Kanonaren zerga-tasa 6 zentimokoa kontsumitutako m<sup>3</sup> bakoitzeko (1.000 litroko).

Salbuetsita dauden hainbat erabilera ere badira, eta horien artean nabarmenena etxeko erabilera (hainbat azterlan egiteko zain dagoen aplikazioa), eta gainera, hobariak ere eska daitezke, hainbatetan zerga-oinarriaren %95era iristen delarik.

2013/02/22an, guztira 1.395.166 €a iristen dira 2012. ekitaldian Uraren Kanonagatik bildutako diru-sarrerak. Hala ere, litekeena da zenbatekoa gutxi barru nabarmen handitzea, aurreko zenbatekoen antzekoetara heldu arte, 2012ko ekitaldian guztira 2.865.710,87 € bilduko direla uste baita.

Sartutako uraren kanonaren bilakaera





# 5.3.

## Ibilguak mantentzeko zerbitzua

## 5.3. Ibilguak mantentzeko zerbitzua

2012an, Ibilguak Mantentzeko Zerbitzuak 3 koordinazio-bilera egin ditu. Gainera, Ibilguak Mantentzeko Zerbitzuaren barruan egin beharreko jardunen urteko plangintza egin da. Jardun horiek honako talde hauetan sailkatu dira:

- 2012. urtean egindako jarduketaren txostena.
- Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko 2012. ekitaldirako programa.
- Jarduketaren lehentasuna Euskadi barruko Arroen Plan Hidrologikoaren arabera ezartzea.
- Beste administrazio batzuekiko administrazioa, eta bereziki espezie inbaitzaileak eta landaketak kentzeko proiektuetan.
- Mantentzeko kontratu bateraturako plegu berriak egin.



Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoan 866.723,10 € inbertitu dira 2012. urtean zehar. Aurrekontuaren %47,4 ekosistemak hobetzeko jarduketetan inbertitu da (ingurumen-lehengoratzeari, landaketak, inbaditzaileak kentzea) eta %52,6 mantentzeko eta ezusteko lanetan. Gehien Ibaizabal (%62,69) eta Oka (%14,74) ibaien arroetan inbertitu da.

Mediterraneoko arroen bulegoan 611.034,48 € inbertitu dira 2012. urtean. Aurrekontuaren %32,2 ekosistemak hobetzeko jarduketetan inbertitu da (ingurumen-lehengoratzeari eta landaketak) eta %66,8 mantentzeko eta ezusteko lanetan. Gehien Zadorra eta Ebro ibaien arroetan inbertituta da, hots, aurrekontuaren %66 eta %11, hurrenez hurren.


Bestalde, Ekialdeko kantauriar arroen bulegoan 1.487.558,88 € erabili dira. Aurrekontuaren %45,86 ekosistemak hobetzeko jarduketetan inbertitu da (ingurumen-lehengoratzeari, landaketak, inbaditzaileak kentzea) eta %54,14 mantentzeko, ezusteko eta uholdeen ondoko lanetan. Gehien Oria (%42) eta Deba (%22) ibaien arroetan inbertitu da.



MENDEBALDEKO KANTAUARIAR ARROEN LURRALDE BULEGOA			
	Jarduketa kop.	Kostua	Jarduketa guztien kostuaren %
Ingurumena lehengoratzea	9	161.080,43 €	23,28 %
Espezie inbaditzaileak kentzea.	14	95.789,37 €	13,85 %
Landaketak + landaketen mantentzea	61	71.096,17 €	10,28 %
Programatutako mantentzea	73	123.970,61 €	17,92 %
Ezustekoak	181	239.894,59 €	34,68 %
<b>JARDUKETA GUZTIAK</b>	<b>338</b>	<b>691.831,17 €</b>	<b>100,00 %</b>
Ibilgailu teknikoek gastua		24.654,33 €	
Gastu teknikoa		87.505,84 €	
Lehentasunezko arroen azterketa			
Azterlanak		2.280,00 €	
Materialak pilatzea		60.451,76 €	
<b>GUZTIRA</b>		<b>866.723,10 €</b>	

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA			
	Jarduketa kop.	Kostua	Jarduketa guztien kostuaren %
Ingurumena lehengoratzea	8	26.138,28 €	4,88 %
Espezie inbaditzaileak kentzea	0	0,00 €	
Landaketak + landaketen mantentzea	96	151.559,66 €	28,32 %
Programatutako mantentzea	119	357.244,96 €	66,75 %
Ezustekoak	1	251,20 €	0,05 %
<b>JARDUKETA GUZTIAK</b>	<b>223</b>	<b>535.194,1 €</b>	<b>100,00 %</b>
Ibilgailu teknikoek gastua		10.082,32 €	
Gastu teknikoa		56.337,71 €	
Segurtasun eta osasunerako gehitutako kontu-saila		0,00 €	
Materialak pilatzea		9.240,35 €	
<b>GUZTIRA</b>		<b>611.034,48 €</b>	

EKIALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA			
	Jarduketa kop.	Kostua	Jarduketa guztien kostuaren %
Ingurumena lehengoratzea	8	153.404,03 €	11,25
Espezie inbaditzaileak kentzea	16	213.126,24 €	15,63
Landaketak	20	98.039,92 €	7,19
Landaketen mantentzea	38	160.637,52 €	11,78
Programatutako mantentzea	41	227.358,71 €	16,68
Ezusteak	64	161.994,29 €	11,88
Uholdeak	28	348.614,75 €	25,57
JARDUKETA GUZTIAK	215	1.363.175,46 €	100%
Gastu teknikoa		97.637,82 €	
Prebentzio- eta osasun-arloko gastua		9.120,36 €	
BEZ %18tik %21ra aldatzearen gastua		11.990,86 €	
2011n, 2012ko urterotik egindako jarduketak		5.634,38 €	
GUZTIRA		1.487.558,88 €	



# 5.4.

## Isurketen arloa

## 5.4. . Isurketen arloa

### 5.4.1. Isurketa-baimenak

Isurketa-baimenak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikora egin beharreko isurketak zer baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta kalterik txikiena eragiteko.

2012. urtean zehar isurketa-baimenen arloaren 4 koordinazio-bilera egin dira. Ibilgu publikora isurtzen duten edo lurrera iragazten diren arazketa-sistemak ikuskatzen jarraitu dute Uraren Euskal Agentziaren arroen bulegoek.

2012an isurketak baimentzeko edo berraztertzeko (indarraldia iraungitzean) 250 eskaera berri izapidetu dira, eta aurreko urteetan hasitako baimen-ebazpenik gabeko espediente ugari izapidetzen ere jarraitu dute.


Bestalde, 148 isurketa-baimen ebatzi dira.

Arroen bulegoek, indarreko kudeaketa-aginduaren barnean, 21 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin dute 2012an, isurketen arloko beren eskumen-eremuaren barnean indarreko legeria ez betetzearen ondorioz.

Gutxi gorabehera 1866 isurketa-baimenen jarraipena egin da, hondakin-uren araztegi eta isurketa-puntu nagusien ustiaketa-txostenak aztertuz, arazketa-sistemak gaizki ibiliz gero ur-jabari publikorako kaltegarri gerta daitezkeela aintzat hartuta.

## 5.4.2. Ingurumeneko Baimen Bateratua


Bestetik, ingurumena oro har babesteko helburuarekin Ingurumeneko Baimen Bateratuaren (IBB) kontzeptu berria sartu zuen 16/2002 Legea aplikatuz. Arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsadura-ren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuen izapidetzean, nola hondakin-uren isuriei dagozkien txosten loteslearen errekerimendu eta proposamenetan hala ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.




## 5.4.3. Isurketak Kontrolatzeko Kanona

**G**aur egun Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko barneko arroen kanona baino ez du likidatzen. Jarraian, Isurketaren Kanonaren bilakaera azaltzen da

Isurketa kanonaren bilakaera





# 5.5.

**Ikuskaritza  
arloan eta  
laborategia**

## 5.5. Ikuskaritza arloa eta laborategia

### 5.5.1. Ikuskaritza-arloa

**U**rak Ikuskatzeko Arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: URA agentziako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioen berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

2012. urtean, ikuskatze-zerbitzuak honako lan hauek ikuskatu ditu, besteak beste: hiru lurralde historikoetan abiadura handiko trenbidea eraikitze lanak, Urretxuko saihesbidea eraikitze lanak, Arabako Bailaretako lur ureztatuak, Gaubea eta Zuiako saneamenduen eraikuntza, zein EAE osoan ibilguak mantendu eta lehengoratzeko lanak.

Nabarmentzekoa da, halaber, SOS Deiak erakundea abisuen arretaren arloan egiten ari den lana, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dagokienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, gaueko eta eguneko edozein ordutan, lane-gun edo jaiegunetan eskaera guztiei erantzunez. Gutxi gorabehera horrelako 275 abisuri eskaini diete arreta.

Ur-ikuskatzaileek beren jardun-eremuko isurketa-puntu guztiak bisitatu dituzte, isuri horiek ibilgailu hartzailean eragindako inpaktua une oro ikuskatu eta egiaztatzeko.

Bestetik, isuritako efluenteen laginketa egin da, bulegoetako langileek ikuskatzeko egindako bisitaldietan efluente horiek ohiz kanpoko itxura zutela edo ingurune hartzailearentzat nabarmen kaltegarriak zirela antzeman duten kasuetan.



#### • Ikuskaritzako hobekuntza-lanak

Ikuskaritza eta laborategiaren arloko 2012ko hobekuntza-jarduketa nagusiak ondorengoak izan dira:

- Ikuskaritzaren eta ikuskaritzari lotutako prozeduren gidaliburua.
- Ikuskaritza-lanen plangintza espedienteen kudeatzailearen bitartez egitea.
- Programatutako lagin-bilketen programaren plangintza.
- PDA ezartzea.
- Prestakuntza.
- Ikuskaritzarako hobekuntzak.

Jarraian, jarduketa guztiak deskribatuko dira:

#### - Ikuskaritzaren eta ikuskaritzari lotutako prozeduren gidaliburua

2012. urtean zehar ikuskaritzaren gidaliburua prestatu da, URAk ikuskapen-ekintzak burutzeko bete behar dituen baldintzak deskribatzeko.

Eskuliburu horri lotuta sei prozedura landu dira, ikuskapen-ekintzak sistematikoki eta plangintzaren arabera egiteko erreferente gisa, hala nola:

- PI-01 Ikuskapen-prozedura emakidetan.
- PI-02 Ikuskapen-prozedura lan-baimenetan eta bestelako jarduketetan.
- PI-03 Jarduketa-prozedura eraginetan eta inbentarioak egiterakoan.
- PI-04 Ikuskapen-prozedura isurketa-baimenetan.
- PI-05 Hondakin-uren isurketen ikuskapenetan laginak hartzeko prozedura.
- PI-06 Jarduketa-prozedura ingurumen-jazoeretan eta abisuetan.

Halaber, goraldietan jarduteko prozesura ere landu da 2012an zehar, eta ora-in tartean dauden alderdiei kontsultak egiteko fasean daude.

- Ikuskaritza-lanen plangintza espedienteen kudeatzailearen bitartez egitea

Urte honetan zehar, ikuskatzaileari administrazio-ebazpena duten jarduketak ezagutu eta kontsultatzea erraztuko dioten sistematika eta kontsultak diseinatu dira, horien inguruan aldizkako jarraipena eta, obrak amaitutakoan, amaierako txostena egin behar denean.

- Programatutako lagin-bilketen programaren plangintza.

Urte honetan zehar eta bulego bakoitzak egindako laginketa-planen arabera, horien inguruko doikuntzak egin dira laginak biltzeko lana homogeneoa izan dadin ikuskatzaile bakoitzari dagokionez, eta gainera, laborategia-rekin koordinatuta egin ahal izateko.

- Hiri-aglomerazioen laginketa

2012. urtean zehar, 2.000 biztanle baliokidetatik gorako hiri-aglomerazioetako isurketen laginen bilketaren plangintza egin da.

- Goraldietako jarduketak

Halaber, goraldietan jarduteko prozedura ere landu da 2012an zehar, eta ora-in tartean dauden alderdiei kontsultak egiteko fasean dago.


## 5.5.2. Laborategia

2012. urtean, URA agentziak Lasarten duen laborategian 818 lagin aztertu dira guztira, eta horietatik 570 Ekialdeko Kantauriko Arroei dagozkie, horietatik 431 laginketa programatuetatik ateratakoak, 88 hiri-aglomerazioetako laginketa-planen ingurukoak eta 55 ohiz kanpoko isurien ondorio dira. Mendebaldeko Kantauriar Arroen eremutik 206 lagin aztertu dira, eta horietatik 100 laginketa programatuetatik ateratakoak, 90 hiri-aglomerazioetako laginketa-planen ingurukoak eta 16 ohiz kanpoko isurien ondorio dira. Mediterraneoko Arroen eremutik 42 lagin aztertu dira, eta horietatik 15 laginketa programatuetatik ateratakoak eta 27 hiri-aglomerazioetako laginketa-planen ingurukoak dira.

Besteak beste, honako parametro hauek aztertu ditugu: pH, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, 05EB, nitrogeno amoniakala, nitritoak, nitratoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal osorako laginen digestioa, metal astunak, olio eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, fosforoa guztira, fluoruroak, hidrokarburoak, guztizkoak, alkalinitasuna, gogortasuna guztira, kaltzio-gogortasuna eta uhertasuna.

Mediterraneoko Arroen Bulegoak administrazio hidraulikoaren erakunde laguntzaile baten zerbitzuak kontratatu ditu, bulego horretako langileek hondakin-uretatik hartutako laginen karakterizazio analitikoa egiteko.

URAREN laborategian aztertutako laginak



A stylized owl logo in white and blue, positioned in the upper left corner of the page. The owl's body is a large white circle with a blue circle inside, and its head is a smaller white circle with a blue circle inside. The background is a solid blue color with a white curved line on the right side.

Plangintza eta lanak



# 6.1.

## Plangintza hidrológikoa

## 6.1. Plangintza hidrologikoa

### 6.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoa

2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentarauak urak kudeatzeko printzipio berriak ekarri ditu, ur-sistemen egoera ona lortzea eta eskaerei behar bezalako erantzuna ematea uztartuz, uraren arrazoizko kudeaketa eraginkorra eginez eta plan hidrologiko berriak aplikazio-ardatz gisa hartuz. Arro bakoitzerako plan bat egin behar da, aipatutako helburuak betetzeko jardun guztiak bilduta, eta tartean, ur-masetarako zein mugapean barne hartutako eremu babestuetarako ezarritako helburuak lortzeko beharrekoak diren xedapen arau-emaeleak eta jarduketak barne hartuta



Uraren Euskal Agentziak, UEZ eta Euskal Autonomia Erkidegoko Urei buruzko Legean jasotako jarraibideak betetz, "Euskal Autonomia Erkidego Barruko Arroen esparruan Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa" izapidetu du 2012. urtean zehar. Eusko Jaurlaritzak 2012ko urriaren 30ean Plan hau onartu zuenean, foru- eta toki-administrazioekin, uraren zerbitzuetako erakunde kudeatzaileekin eta Gobernu Zentralaren menpeko erakundeekin, eta tartean, Kantauriko Ur Konfederazioarekin eta Itsasertz Mugartearrekin, eraginkortasunez elkarlanean luze aritu ondoren, agiri hau egiten amaitu zen. Gainera, hiritarrek ere eraginkortasunez esku hartu dute horretarako ezarritako bide ezberdinen bitartez, eta tartean, sare sozialek eta Internetek eskaintzen duten hedapen zabalaz baliatuz, zein Proiektuaren fase ezberdinak egiteko berrogeita hamar bat tailerretan esku hartuz. Euskadin 1994an Ur arloko eskumena transferitu zenetik formalki egin den lehen plan hidrologikoa da.

Plan honen helburu nagusiak hiru atal handitan sailka daitezke:

**1. Ingurumen-helburuak:** Sistema urtarren narriadurari aurrea hartzean eta horien egoera egokia lortzean datzate. Ur-masei dagozkien ingurumen-helburua ez ezik, ingurune urtarrari lotutako eremu babestuen presentzia ere izan da kontuan, beren zaintzarako eskakizun gehiago eduki ahal dituztenean edo bere ingurumen-helburuak ur-masenenen gehigarriak direnean.

**2. Ur-eskaria beteko delako bermearen hobekuntza,** eta bereziki, hiri-hornidurak, kalitate eta kantitatearen bermeak areagotuz, eta been erabilerak ingurumenarekin bat eginez arrazionalizatuz. Azken batean, ur-eskariaren gogobetetasun egokia eta ingurumen-helburuen lorpena bateragarri egitea lortu nahi da.

**3. Uholdeek eta lehorteek eragindako kalteak gutxiagotzea.** Plan Hidrologikoak jasotzen duen planteamenduak europar zuzentarauaren uholde-arriskuari buruz dituen betekizunak garatu, eta arriskuaren prebentzioan oinarritutako ikuspegia (prebentzio-neurriak edo ez estrukturalak) eta finantutako hiriguneetako uholde-arriskua txikiagotzeko beharrezkoak diren jarduketak (neurri estrukturalak) bateratzen ditu, eta neurri horiek ingurumen-helburu berriekin bateragarri izaten saiatzeko diseinatu dira.

Gorago aipatutako helburuak, ekosistema urtarrak luzaroan babestean eta uraren zentzuzko gestioan eta erabilera eraginkorrean oinarrituta daude.

Plan Hidrologiko honek lortu nahi dituen helburuak erdietsi ahal izateko bi tresna nagusi ditu: batetik, Araudia, zeinak ekosistema urtarrak eta horien ingurunea gehiago nariatzea galarazteko eta baliabideen kudeaketa egokia bermatzeko eta ur-masak eta, oro har, ingurune urtarra, hiritarrak eta bere ondasunak babesteko helburua baituen, eta, bestetik, Neurrien Programa. Programa horrek administrazio ezberdinek jarduketara zehatzak burutzeko hartu duten konpromisoa jasotzen du, eta horiek burutzean aurreko helburuak beteko baitira. Horrela, hasiera batean (2015ean) ur-masen %80an lortuko lirateke ingurumen-helburuak eta gainerakoetan bigarren fasea batean (2021).

Plan Hidrologiko honetan jasotako jarduketek eta neurriek 649 milioi eurotako aurrekontua dute 2010-2015eko epealdirako, eta beste 840 milioi eurotako, 2016-2021 epealdirako. Neurri horien finantzazioa administrazio ezberdinen artean banatuta dago: %23 Estatuko Administrazio Nagusia, %23 URA/Eusko Jaurlaritza, %22 Foru Aldundiak eta %21 Partzuergoak eta Mankomunitateak).

Gainera, 2012ko azaroaren 8an, Agentziak Kantauriko Ur Konfederazioarekin elkarlanean, Plan hau eta gainerako Kanturi Ekialdeko Mugape Hidrografikoari dagokiona harmonizatu ditu, estatuaren eskumenekoa den zatian, Kanturi Ekialdeko Mugapen Hidrografikoaren Plan Hidrologiko osoa egituratzeko. Plana berak eskatutako eta 2012ko uztailaren 18an sinatutako Lankide Hitzarmenean (Mugape hidrografikoen lurralde-eremua onartzeko otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretua eta Arroko erakundeen eta plan hidrologikoen lurralde-eremuak definitzeko maiatzaren 8ko 650/1987 Errege Dekretua aldatu zituen urtarrilaren 29/2011 Errege Dekretua) jasotako harmonizazio hori, Agentzia honen eta aipatu Konfederazioaren elkarrekin eta etengabe, eta plan hidrologikoak lantzeko fase bakoitzean egindako lanari esker lortu da 2013ko lehen hiruhilekoan Plan Hidrologikoa aldizkari ofiziale-tan argitaratzea aurreikusten da.



Ondoren, egindako izapideak laburbiltzen dira:

- **2012ko irailak 6:** Uraren Euskal Agentziaren Administrazio Kontseilua. Proiektua izapidetzeko proposamen-erabakia.
- **2012ko irailak 28:** Uraren Euskal Agentziako Kontseiluaren aldeko txostena.
- **2012ko urriak 1:** Ingurumen sailburuaren ebazpena, "Euskal Autonomia Erkidego Barruko Arroen esparruan Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren Proiektuaren" Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko behin betiko Txotena ematekoa.
- **2012ko urriak 3:** Jakitun egon daitezen, Ekonomia eta Osasun Sailaren Aurrekontu Zuzendaritzari eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari Proiektuaren eta bere izapidetzearen berri ematea.
- **2012ko urriak 11:** Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordearen aldeko txostena.
- **2012ko urriak 17:** Uraren Euskal Agentziako Erabiltzaileen Batzarrak proposatu zuen Gobernu Kontseiluari proposatzea, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bitartez, "Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren Proiektua" izapidetzen jarraitzea.
- **2012ko urriak 30:** Gobernu Kontseiluak "Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren Proiektua" onartu eta Kantauri Ekialdeko Mugape hidrografikoaren Koordinazioko Talde Organoari bidali zion.
- **2012ko azaroak 8:** Koordinazioko Talde Organoak, Koordinazio Batzorde Teknikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren proposamena aho batez onartu eta Gobernuari, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren bitartez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren proposamena bidaltzea erabaki zuen.
- **2012ko abenduak 13:** Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak proposatuta, Uraren Kontseilu Nazionalak Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren proposamena onartu eta aldeko txostena egin zuen, Gobernuak Errege Dekretu bidez onar zezan.

## 6.1.2. Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak

2000/60/EE Zuzentarauaren 8. artikulua ondozko uren egoeraren jarraipena egiteko programak ezartzeko obligazioa betez, 2012. urtean, orobat, ur-masa mota ezberdinei (lurpekoak, ibaiak, hezeguneak, trantsizio-urak eta kostaldeko urak) aplikatutako egoeraren hainbat jarraipen-sareren dagokion ustiapena egin da, eta honako proiektu hauei dagozkie.

- EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko ibaien egoera kimikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko barrualdeko hezeguneen egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko lurpeko uren kontrol-sarea.

Halaber, eremu babestuen gaineko jarraipenak hasi dira 2012. urtean:

- EAEko Barne Arroen uren kontrol-sarea: gizakion kontsumora bideratutako ur ekoizpena, Giza kontsumorako uraren kalitatearen osasun-irizpidek ezartzeko otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuko betekizunen ondoriozkoa.
- Kostaldeko bainurako eremuetako kontrol bakteriologikoa, bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuko betekizunen arabera, eta 2011n Euskadiko kostaldeko bainurako uretan ezarritako profilekin.

Sare horien helburua ur-masen egoera eta bilakaera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboaren informazioa eskuratzea da, horiek guztiak UEZek ezarritako kontrol-eskakizunak betez lortuta.

Informazio-pilatze horrek honako hauek ahalbidetzen ditu: egoera ebaluatzeko sistemak bideratzea, ingurumen-helburuak ezarri edota berrikustea, Plan Hidrologikoetan ezarritako neurrien programak ebaluatze, Europako Batzordeak sustatutako interkalibratze europar prozesuan esku hartzea eta, gainera, beste arlo batzuetarako kontsulta-tresna gisa erabil daiteke, eta bereziki jabariaren kudeaketan eta ebaluazioan.

Jasotako informazioarekin, OSPAR Hitzarmenaren inguruko txostenak, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programaren ingurumen-adierazleen aldeko txostenak, zein Estatu edo Europa mailan informazioa biltzeko betekizun batzuk landu dira.

Bestalde, kontrol zehatzagoa beharrezkoa dutela jotako eremuetan jarraipen bereziak egin dira, eskuarki Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren edota beste administrazio batzuen (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Zuzendaritza, Ihobe, etab.) laguntzarekin. Hartara, arazo zehatzak dituzten gainazaleko eta lurpeko ur-masen azterlan zehaztuak egin dira, hala nola, Gernikan, Lantaronen, Forondan, Oiolan, etab.

Uraren Euskal Agentziak, Erakunde arteko Harremanetako, Jabariaren Kudeaketarako eta Plangintza eta Lanetako Zuzendaritzaren arteko elkarlan estuari esker, zebra muskuilua (*Dreissena polymorpha*) kontrolatzeko lanak egiten jarraitu du. Lan horiek, EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko Jarraipen eta Koordinazio Batzordearen jardura barruan burutu dira, eta zebra muskuiluaren hedapenari aurrea hartzea eta aurkako eraginak mugatzea, administrazioen arteko eginbeharrak bultzatzea, EAEN espezieak duen bilakaeraren jarraipena egitea, ingurumenaren gaineko eraginak baloratzea eta hedapen- eta sentikortze-lanak egitea dute xede.

2012. urtean garatutako ekintzen artean honako hauek nabarmendu behar dira: EAEko ur-masetan dagoen zebra muskuiluaren larbak kontrolatzea, espeziearen populazio berriak azkar hautemateko eta leku hartu duten tokietan horien eboluzioaren jarraipena egiteko helburuarekin; espezie hau dagoela ezaguna den edo duela gutxi leku hartu dutelako susmoa dagoen eremuetan ale helduen zentsua egitea, eta lekukoak jarri eta horien jarraipena egitea; espezieak ur gezako bertako kuskubikoen (naiadeak) populazioetan duen eraginaren bilakaera ebaluatzea; eragindako eremuetan nabigazioa mugatzea eta informaziozko kartelak jartzea; eta azkenik, zebra muskuiluari buruzko dibulgazio-jardunaldia antolatu zela (Ekainak 6, Ataria – Vitoria-Gasteiz), eta espeziaren hedapena garazteko metodoei buruzko informazio praktikoa ematen zuten erakusketa ibiltaria, dibulgaziozko triptikoak eta desinfekziozko protokoloak egin direla nabarmendu behar da.

## 6.1.3. Informazio-sistemak

2012. urtean zehar Uraren Euskal Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura (EDA-URA) hobetu eta garatzeko lanekin jarraitu da. Funtzionalitate berriak gehitu eta zabaldutako datu eskuragarriak areagotu dira.

Halaber, URAREN Espediente Kudeatzailearen aplikazioan Informazio Geografikoko Sistemarekin familia berriak integratzeari ekin zaio. Horrela, automatikoki lekualdatzen dira datu geografikoak Espediente Kudeatzailean jasotako datuen kalitatea hobetuz. Urte honetan, isurketei buruzko datuak sartu dira. Orobat, Espedienteen Kudeatzailean GIS sistemarekin beste bi familia integratzeko lanak hasi dira: Ingurumen-arloko txosten teknikoak izapidetzea eta erkidego arteko arroen emakidei buruzko txostenak izapidetzea.

Bestalde, Uraren Euskal Agentziaren ibai-ikuskatzaileei tokian bertan informazioa jasotzeko gailu eramangarriak emateko lanei ekin zaie. Tokian bertan informazioa kontsultatzea zein datuak biltzea ahalbidetzen duten PDA motako ordenagailu eramangarriak dira. Gailuek, gainera, geokopakapeneko GPS tresna dute, eta baita argazki- eta bideo-kamera edo datuak GPRS bidez bidaltzeko aukera ere.

1/150.000 eskalako EAEko Mapa Hidrologiko berria argitaratu da. Mapa berrriaren poltsikoko formatuko 5.000 ale eta poster formatuko 1.500 plazaratu dira. Mapa, udal, aldundi, partzuergo eta erakunde laguntzaileen artean banatu da.

Bestalde, Euskadiko uren egoerari buruzko informazio-sistema (EUEIS) berrriaren garapena abiarazi da. Horren bitartez, gure autonomia-erkidegoko ur-masen egoerari buruzko informazioa gorde eta teknikarien eta herritar guztien eskura datu horiek kontsultatzeko tresna jarri nahi da.

Informazio geografikoa koordenatu-sistema berrira (ETRS89) egokitze lanak hasi dira, 2015an ezinbestekoa izango baita betetzea. Horrek, informazio geografikoaren geruzetan koordenatu-sistema zein koordinatuak tauletan eta datu-baseetan aldatzea eskatzen du.

## 6.1.4. Gestión de líneas de ayudas y Convenios de colaboración

Uraren alorrean ikertu eta garapen-lanak egiteko aurreko urteetan jada ezarritako laguntza-lineari jarraipena eman zitzaion 2012. urtean.

Hartara, Urarekin eta ekosistema urtarrekin zerikusia duten berrikuntza-, ikerketa- eta garapen-programa eta -proiektuetarako diru-laguntzen deialdi publikoa egiteko Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2012ko martxoaren 7ko Ebazpenaren bitartez, eta 2011ko abenduaren 19ko Ebazpenaren babespean, guztira 9 proiektu diruz lagundu dira, eta tartean, honako hauek aurkeztutakoak: Inatec Fundazioak, Tekniker Fundazioak, EHUko Kimika eta Ingurumenaren Ingeniaritza Sailak, EHUko Zoologia eta Animalien Biologia Zelularreko Sailak, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurumen Sailak, Euskadiko Espeleologoien Elkarteak, Arantzadi Zientzia Elkarteak, Tecnalia Fundazioak eta Zigoitiko Ur Partzuergoak.


Bestetik, bestelako lankidetzak hitzarmenak ezarri edo berri dira ondorengo erakundeekin, oro har, ekosistema urtarrak babestu eta/edo hobetzeko helburuekin:



- Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI - Tecnalia Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, besteak beste, honako helburu hauekin: EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemen ezagutza-maila hobetzeko, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako ekosistemak narriatzea prebenitzeko eta horien egoera hobetzeko, eta EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei lotutako kostaldeko eremuen kudeaketa hobetzeko ekintzak burutzeko. Hitzarmen honen barruan, 2012rako aurreikusitako ondoko proiektuetako eginkizunak burutu dira:
- Estuarioetan jalkinen karakterizazioa eguneratu (II. Fasea: Oiartzun, Urola, Deba, Bidasoa, Oria eta Urumea).
- Laginketa pasiboko gailuen aplikazioa, isurketa kontinentalen eraginen menpeko uren egoera kimikoa ebaluatzeko orain arte erabili direnen aurreko hobekuntza-tresnak.
- Itsaso-mailaren gorakadak eragindako Bizkaiko estuarioen eta kostaldearen uholde-arriskua LiDAR topografiko eta batimetrikoko bidez: kartografia eta eraginen ebaluazioa.
- Klorofila, funtsezko elementua Europako Itsas Estrategia eta Uraren Esparru Zuzentaraurako: faktore ozeano-meteorologikoekiko erlazioa Euskadiko kostaldeko plataforman eta teledetekzioa klorofila-kontzentrazioak zenbatzeko erabiltzea.
- Zostera berreskuratzeko lanak.
- Lindanoak Nerbioiko estuarioan eta bertara isurtzen duten ibilgu nagusietan eragindako kutsaduraren azterketa.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.

- Lindanoak Nerbioiko estuarioan eta bertara isurtzen duten ibilgu nagusietan eragindako kutsaduraren azterketa.
- Uraren Euskal Agentziaren eta lhobe, S.A.- ingurumenaren kudeaketarako sozietate publikoaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Oiola urtegiaren (Bizkaia) ingurunean kutsadura-fokuak aurkitu eta sailkatzeko jarduketak burutzeko.
- URAREN Bilboko Portuaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Bilboko portuaren esparruko isurketak kudeatzeko alternatiben azterlana egiteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistema urtarrak babestu, hobetu, lehengoratu eta berreskuratzeko lankidetzaz-protokolo orokorraren helburua da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistema urtarrak babestu, hobetu, lehengoratu eta berreskuratzeko neurriak modu koordinatuan, adostuan eta eraginkorrean lehenetsi, proiektatu eta gauzatzeko ahalbidetuko duen lankidetzaz-esparru egonkorra ezartzea.



A photograph of a waterfall cascading down a rocky, moss-covered cliff in a lush green forest. The waterfall is the central focus, with water splashing at the bottom. The surrounding vegetation is dense and vibrant green. The image is framed by a blue circular graphic on the right side.

# 6.2.

## Ebaluazioa

## 6.2. Ebaluazioa

**E**baluazioaren arloan hainbat dokumentu eta proiekturen azterketa eta txostena egiteko lanarekin jarraitu dugu Administrazio Hidrauliko honek aplikatu dezakeen arau multzora egokitzen dela egiaztatzeko. Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin lankidetzan estuan garatzen da lan hori eta honako izapide hauek ditu aztergai:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidei buruzko txostena egitea.
- Hirigintza-antolamenduko tresnei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluan I letrari jarraiki (Hasierako onarpena baino lehen, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera).
- Antolamendu estrukturalako planei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluan k) letrari jarraiki (Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioa izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera).
- Hirigintza-espeditenteen txostena udalen behin-behineko onespeneraren ondoko fasean, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean, espeditentea behin betiko onartu baino lehen.
- Txostena dagokion ingurumen-organoari ematea Ingurumen Inpaktuko Azterlanen (IIA) edo Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Bateratuko Azterlanen (IIEE) izapidetzearen esparruan.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako erantzuna, batez ere hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola ingurumena, legeak, uholde-arriskuaren kudeaketa eta abar.




Horrela, ebaluazio-arloaren 2012. aldiko jarduera honela laburbil daiteke aztertuturiko espedienteen zifrari dagokionez:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidekin loturiko 103 espediente, batez ere aprobetxamenduen administrazio-erregularizatzearekin, plangintza hidrologiakoarekiko onespentxostenekin, eta abar.
- Hirigintza-planeamenduak berrikusteko 146 espediente.
- Inpaktu-ebaluazioko izapideekin loturiko 155 espediente.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako 110 erantzun, hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola: ingurumena, legeak, uholdeetako arriskuak eta abar.

Bestalde, Ebaluazioaren arlo honetatik burututako beste jardueretako bat Lanen arloari Uraren Euskal Agentziaren ondorengo obretako ingurumen-arloko izapideak egiten laguntzea izan da:

- Donostiako Martutene auzoaren parean, Urumea ibaia uholdeen aurka babesteko proiektua.
- Getxon (Bizkaia), Gobela ibaia hidraulika aldetik egokitu eta ingurumen aldetik hobetzeko proiektua. Errekagane tartea.
- Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren bideratzearen proiektu eguneratua.
- II. Fasea. Urbi-Bengoetxe tartea.
- Vitoria-Gasteizko udalerrian, Forondako aireportuaren parean Zalla ibaia uholdeen aurka babesteko proiektua.
- Vitoria-Gasteizko udalerrian, Batan eta Zapardiel ibaiak uholdeen aurka babesteko proiektua.
- Gaubea udalerriko (Araba) Osma herrian, Tumecillo ibaia ubideratzeko proiektua.
- Abetxukoko oinezkoen pasabidea handitzeko proiektua.
- Lizartzan, ubiderapena eta zubi berria egiteko proiektua.

An aerial photograph showing a landscape with a large body of water, likely a flooded area, in the foreground. A multi-lane highway curves through the middle ground. In the background, there are rolling hills and mountains, some with snow. The sky is overcast. The image is framed by a blue circular graphic on the right side.

# 6.3.


## Uholdeei Aurrea Hartzea

## 6.3. Uholdeei aurrea hartzea

**B**etekizunen etengabeko erreferentziarekin eta, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzko Europako Parlamentuaren 2007/60/CE Zuzentarauak eta azken hori ordenamendu juridikora egokitu duen 903/2010 Errege Dekretuak eskatzen duten egutegiarekin, 2012an zehar alde zuzenetik abian jarritako lanekin jarraitu da.


2011n Uholde Arriskuaren Aldez Aurretiko Ebaluazioa (UAAE) formalki onartu eta Agiango Uholde Arrisku Handiko Areak (LUAHAK), ehun guztira EAEn, identifikatu ondoren, 2012an nabarmen aurreratu da zuzentarauaren ezarpenaren 2. Fasean, area horietako Uholde Arriskuaren eta Arriskugarritasunaren Kartografiaren lanketari dagokionez.

Lurraldeko Uholde arriskuari eta arriskugarritasunari buruzko ahalik eta kartografiarik zehatzena izateak duen garrantzia dela-eta, tokian bertan datuak hartzeko lan sakona egin da, modelazio hidraulikoaren emaitzak islatu ahal izateko oinarri topografikoa optimizatu ahal izateko. Egindako ibilguen guztizko luzera eta egun topografia zuzenduan dagoena, 1200 km-ra heltzen da.



Terrenoaren Ered Digitalaren zuzenketa topografikoa ibaiaren ibilgu inguruan, tokian bertan datuak hartuta.

Horretan oinarrituta, dagokion eremuaren uholde-arriskuaren zenbaterainokoa irizpide hidrologikoen arabera identifikatu, eta tartean, fluxuaren sakonera eta abiadura, eta horien arabera lotutako arriskuari buruzko lehen aurreikuspenak egiten ari dira.




Uholde-arriskugarritasunaren kartografia eta lotutako eraginaren identifikazioa.

Lan-metodologia honek, uholdeek eragindako kalteak jasan ditzaketen kontzeptu ezberdinen arteko alderaketa-analisiak egin ostean, aztertutako eremu bakoitzak duen arriskuaren irudi orokorra ondorioztatuko du. Halaber, arrisku hori irizpide homogeneous bitartez zenbatzeak, lehentasunak ezartzea eta, bere garaian, arrisku hori murriztu edo, hala badagokio, ezabatzeko beharrezko jarduketak definitzea ekarriko du.

Aipatutako zuzendarauan ezarritakoaren arabera, fase honetako emaitzak amaitu eta formalki onartzeko muga-data 2013ko abendua da. Aldez aurretik, aurretiazko emaitzak ezagutarazi eta jendaurrean jarri, eta prozesu horren emaitzen arabera egokitu beharko dira.



Ibaien goraldiek sor ditzaketen kalteei aurrea hartzera zuzendutako lanen ildo beretik, 2012. urtean Aurreikuspen eta Alerta Hidrologikoen Sistema jarri da ekoizpenean, uholde-arriskuaren aurrean erabakiak hartzen laguntzeko helburuarekin.

Segurtasun Sailaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekiko elkarlanean hertsiki arituz, sistemaren helburua da ibaien eta urtegien bilakaera erregularitasunez helarazitako eguraldi iragarpenen arabera simulatzea, aldez aurretik litezkeen goraldiak identifikatu ahal izateko. Gainera, eta hala badagokio, EAEko lurraldean zehar banatutako kontrol-guneen sarean aurrez ezarritako abisu edota alertaren atalaseak gainditutakoan egon daitezkeen bilakaera ere identifikatu ahal izango da.



EAEko neurketa-estazioen sarea





Eguraldi iragarpen baten arabera simulazio hidrologikoa eta neurketa-estazioetan abisu edota alerta atalaseak gainditzea.



# 6.4.

## Lanak

## 6.4. Lanak



**A**ldi honetan hainbat jardun prestatu eta egin ditugu plangintza hidrológicoan aurreikusitako zenbait helburu lortzeko: ur-masen egoera ona eta babes egokia, ur-eskariei erantzutea, uholdeen aurkako defentsa, eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Obra horiek egokituta hainbat gauza lortzen dira, hala nola kudeaketa integratua eta baliabide hidrikoen epe luzerako babesa, uren egoeraren nariaduraren prebentzioa, ur-ingurunearen eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza eta kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehorteen ondorioak arintzeaz gain.

Uraren Euskal Agentziak 2012. urtean garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- Zuiako Hondakin Uren Araztegia martxan jarri da.
- Zuiako kolektore-sarea egiten jarraitu da.
- Oiongo saneamendu-sarearen 2. eta 3. faseak egiten ari gara.
- Hitzarmena LANVirekin Lantziegoko ureztapen-sistema hobetu eta modernizatzeko.
- Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ibaietan jarduketa hidraulikoak egiteko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako Hitzarmenean barne hartuta dauden proiektu ezberdinen inguruan lan egin da.
- Vitoria-Gasteizko hornidura-hodia bitan banatzeko (Abetxukoko by-passa) lanetan aurrera egin da.
- Gaubea udalerriko Osma herrian Tumecillo ibaia ubideratzeko lanak hasi dira.
- Eskuernagako Hondakin Uren Araztegiaren lanak hasi dira, Arabako Foru Aldundiaren zuzendaritzapean.
- Igorren, Arratia ibaiaren gaineko Garakoi zubia ordezkatzeko lanak amaitu ditu Igorreko Udalak.
- Etxebarrin (Bizkaia), Euskotren Zubia ordezkatzeko lanak bukatu dira.
- Nerbioi-Ibaizabal ibiaren Bolueta-Urbi tartea ubideratzeko proiektua egiten jarraitzen da. Gainera egin beharreko hurrengo tartea, Urbi-Bengoetxe, kontratatzeari ekin zaio.

- Ibaieder ibaian uholdeen aurka babesteko lanak eta Urrestillako saneamenduarenak amaitu dira.
- Ermua-Mallabia saneamendua bitan banatzeko obren 1. faseari ekin zaio.
- Arrasaten, San Isidro zubiaren lanak egin dira.
- Donostian, Rekalde eta Errotaburu artean, Añorga erreka uholdeez babesteko eta saneamendua egiteko proiektuan aurrera egin da.
- Donostiako Loiola auzoan, Euskotren Zubia ordezkatzeko obrak egiten jarraitu da.

Arestian azaldutakoaz gain, garrantzi txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu burutu dira lurralde osoan.

Bestalde, Ur Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatu zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, Ur Agentziari dagokio, barne-arroetako, zein barne-arroetakoak izanda ur-jabari publikotik kanpo dauden Presa eta Urmaelen Saillkapen Proposamenak (SP), Larrialdietako Planak (LP) eta Ustiapen Arauak (UA) zein dagozkien Ezarpen Planak berrikusi eta onartzea. Zentzu horretan, hainbat presa eta urmaelen saillkapen-ebazpen egin eta larrialdietako planen eta ustiapen-arauen berri eman da.



Erakunde  
Harremanak  
eta Komunikazioa

Zuzendaritza honen erronka da ezagutaraztea Agentziaren funtzioak eta aurrera daramatzan ekintzak, eta aldi berean, EAEko ingurune urtarra zaintzeko duen egitekoa gizarteratzen du.

Horretarako, Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren zereginak hiru ildotan banatu daitezke: komunikazioa, nazioarteko lankidetzeta eta sentibilizazioa.





# 7.1. Ura-Uraren Euskal Agentziaren Komunikazioa

**K**omunikazio eraginkor eta gardena Uraren Euskal Agentziaren funtsezko alderdietako bat da. Alde horretatik, lehenasunezko zat jotzen da informazioa helaraztea ahalbidetuko duten bideak izatea. Hori dela-eta, 2012an zehar hainbat ekintza eraman dira aurrera.

Kanpo-komunikazioaren aldetik, prentsa- kabinetea indartu da, haren bitartez Uraren Euskal Agentziaren lan-ildo ezberdinen inguruko informazioa zabaltzeko. Horrez gain, hainbat hedabideren informazio eskaerak erantzun dira.

Beste alde batetik, kontsulta postontziaren bitartez erantzun dira herritarrek Agentziari buruz dituzten kontsulta, iradokizun eta kexak.

Horrekin batera, 2012an Uraren Euskal Agentziaren web orriaren eguneratzearekin jarraitu da ([www.uragentzia.euskadi.net](http://www.uragentzia.euskadi.net)), agentziaren lan tekniko eta administratiboa aurkitzeko baliabide erabilerrazago bat sortzeko asmoz. Prozesu horren barruan kanpo-komunikazioko bide berriak ere barne hartzen ditugu, eta tartean, blog korporatibo bat ta newsletter bat, eta espero dugu gutxi barru herritarren esku ere egotea.

Sare sozialen bitartez (twitter, you tube, flickr...), orobat, herritarrekin dagoen elkarrizketa zuzenaren alde egiten jarraitu dugu.

Barne komunikazioaren arloan, 2012an zehar, aurreko urtean abian jarritako intraneta abian berrikusi da, langileen arteko elkarrizketa eta parte-hartzea arindu eta hobetzeko helburuarekin.

Era berean, eguneroko prentsa dossier bat prestatzen da urarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin harremana duten berriekin, eta, hilabetero barnerako Informazio Buletina prestatzen da ekintza nabarmenak, ekitaldi eta jardunaldi tekniko garrantzitsuenak nabarmentzeko.



**7.2.**

**Sentsibilizazio  
eta hezkuntza  
ekintzak**

## 7.2. Sentsibilizazio eta hezkuntza ekintzak

### 7.2.1. On line ikastaroa: Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta ingurumen-sentsibilizazioa

URaren Euskal Agentziak “Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta ingurumen-sentsibilizazioa” izeneko on-line ikastaroa abiarazi zuen, aurten Latinoamerikaren arloan, politikari teknikari, zein uraren kudeaketaren inguruko profesionali eta arduradunei edota ingurumen-hezitzaileei eta gaien interesa duten ikasle eta lizentziatu guztiei zuzendua.

Ikastaro honen helburua da gizartearen kultura- eta pentsamolde-aldaketaren alde egingo duten argudioak ematea, aldaketa horren bitartez ur eta ibaiez dugun kontzeptua (ur-biltegi hutsak), uraren ekoizpenerako baliagarritasunak, funtzioak eta lurraldeari, ingurumen, ekologia, paisaia, gizarte, kultura eta emozio eta zentzumenen alorrean, lotutako eta nazioarteko ingurumen-lege berrietan eta UEZen jasotako balioak aldatzerik izan dadin.

## 7.2.2. Ibaiari buruzko ikasgelak eta dibulgaziozko hitzaldiak

Dibulgaziozko ekintzen helburua da ur-inguruneari buruzko ezagutza areagotzea, uraren kultura berriaren printzipio eta oinarriak ikuspegi ekosistemiko eta holistikoaren bitartez ezagutaraziz.



## 7.2.3. Diru-laguntzak

Ur arloan, ingurumenaren inguruko prestakuntza- eta sentikortze-ekintzetarako diru-laguntzen lerroarekin jarraitu du Uraren Euskal Agentziak 2012. urtean zehar. Urak berrehun eta berrogeita hamar mila euro (250.000) bideratu ditu diru-laguntza horietara, uraren arloko informazio, prestakuntza eta ingurumen-sentsibilizazioari lotutako ekimenetatik ondorioztatutako gastuak ordaintzeko.



# 7.3.

## Ekitaldi eta jardunaldi teknikoak

## 7.3. Ekitaldi eta jardunaldi teknikoak

2012. urtean zehar hainbat ekitaldi, eztabaida-foro eta jardunaldi teknikoak izan dira, eta horien gizartearentzat oso interes handia duten gaiak eta arazoak jorratu dira. Horiek guztiak funtsezko tresna dira beste erakunde eta entitateekin nahiz hiritarrek komunikatzeko.

### 7.3.1. Uraren Mundu Eguna 2012

Uraren Mundu Eguna urtero martxoaren 22an ospatzen da, ur gezaren garrantziaz eta baliabide hidrikoen kudeaketa iraunkorraren babesaz ohartarazi nahi duen gai nabarmenarekin. 2012an, Nazio Batuek aukeratutako leloa izan zen Ura eta Elikadura Segurtasuna.

Eta hain zuzen ere, egun hori ospatzeko, uraren kudeaketari eta hiri-garapenari buruzko nazioarteko Topaketa antolatu zuten, elkarrekin, Europa Jaurerian, Vitoria-Gasteizko Udalak (Amvisa), Arabako Foru Aldundiak eta URAK (Uraren Euskal Agentzia). Ostrava, Bristol, Toscana, Nantes eta Aalborg-etik, eta baita, Alacant, Gijon, Logroño, Iruña, Santander, Soria, Kordoba, Bilbo eta Gasteiztik ere, heldutako esperientzia baliotsuen inguruan hausnartu eta horiek guztiak komunean jartzeko hiru egun.



Lelo horri berari jarraituz, halaber, Uraren Euskal Agentziak (URA) "Uraren zikloa, bizi-zikloa eta zinema-zikloa" izenburupeko Uraren Astea antolatu zuen, Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Udalaren eta AMVISA-Gasteizko Urak elkartearen babesarekin eta UNESCO Etxearen laguntzarekin.



## 7.3.2. Urumea ibaiaren arroan uholdeei aurrea hartzeko erakunde arteko batzordea

**E**usko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Donostia, Astigarraga eta Hernaniko, Añarbeko Urak elkarteko ordezkariekin eta Ingurumen Ministerioako Kostaldean Zuzendaritzako ordezkariekin batera Batzorde horretan esku hartu zuen URAk. Batzordea 2012an zehar funtzionatu du, uholde-arriskuaren aurrean segurtasuna areagotzeko ekintza ezberdinak koordinatzeko helburuarekin, Donostia, Astigarraga eta Hernaniko udalerrietan Urumea ibaiak gainezka egitean aldizka jasaten dituzten uholdeei aurrea hartzeko.





## 7.3.3. URAREN Ekitaldea

URAK, 2011. urtetik Udalsareko (Iraunkortasunaren aldeko Udalerrien Euskal Sarea) kide dena, 2012an URAREN ekitalde bat antolatu zuen lhiborekin batera, uraren eta ingurune hidrikoaren eta horrek toki-eremuan dituen eraginen inguruko gai ezberdinei buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatzeko helburuarekin. Proiektuan 14 udalek eta bi mankomunitatek esku hartu zuten.



## 7.3.4. Zadorrako Sistemaren Jarraipenerako Erakunde Arteko Mahaia

Uraren Euskal Agentzian, Zadorrako Sistemaren Jarraipenerako Erakunde arteko Mahaiaren bilera egin dira ur handien epealdietan, Vitoria-Gasteizen goraldien eraginak txikiagotzeko. Mahai honetan esku hartzen duten kideak honako erakunde hauek ordezkatzen dituzte: URA-Uraren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari atxikitako Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteizko Udala, AMVISA, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa eta Iberdrola.

Horretan, azken orduetako prezipitazioak eta hurrengo egunetarako eguraldi iragarpenak aztertzen dira, sistema horren urtegien egoeraren jarraipenean koordinatuta lan egiten duten erakundeek apropos onartutako protokoloen arabera.

## 7.3.5. Guratrans Proiektua



**G**uratrans proiektu europarra da, eta horretan datozen bi urteetan Pirinioetako alde bietako erakundeek, beren lurraldeetatik pasatzen diren ibaien hobekuntza sustatuko dute. Pirinioetako mendebaldeko muturreko mugaren alde bietako ibaietan ingurumen-baliabideak hobetzearen alde lan egingo du Guratrans-ek. Eremuan plan hidrológico europarretan ezarritako neurriak bultzatzea du xede, arro horien kudeaketa integralean esku hartzen duten erakunde ezberdinen arteko lankidetzaz sustatuz.

Baliabide hidrikoen koordinazio hobea eta kontrol handiagoa ahalbidetuko duten mugaz eta eskualdez haraindiko kudeaketa-egiturak ezartzeko beharri erantzuteko jaio da proiektu hori. Eta hori gauzatzeko, honako erakunde hauek kide dituen lan-taldea ezarri da: HAZI korporazioa, URA-Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Ingurumenaren arloko Baliabideen Gida, Nafarroako Gobernua, Communauté de Communes Sud Pays Basque eta Adour-Garonne Ur Agentzia.

## 7.3.6. EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko jarraipen- eta koordinazio-batzordearen hainbat bilera egin dira



2012. urtean zehar EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko jarraipen- eta koordinazio-batzordearen hainbat bilera egin dira. Horren baitan arloan eskumena duten erakunde ezberdinak (Uraren Euskal Agentzia, Kantauriko Ur Konfederazioa, Aldundiak, Partzuergoak, etab.) biltzen dira, honako helburu hauek izanda:

- Administrazio ezberdinen artean sortzen den informazioa partekatzea.
- Jarduketa osagarrien garapenerako administrazioen arteko koordinazioa.
- Baterako jarduketak abian jartzeko erakunde arteko lankidetzeta.
- Zebra muskuiluaren populazioen bilakaeraren jarraipena egitea, espeziaren hedapen galarazi edo moteltzeko.

- Etorkizunean zebra muskuilua ez hedatzeko aurrea hartzea.
- Egon dauden populazioak ezabatzea.
- Espeziaren inguruko hedapen eta prestakuntza.

## 7.3.7. Uratloiak, URA-Uraren Euskal Agentziak sustatutako kirol-hitzordua



Uztaileko asteburuetara begira sustatu zen kirol-ekimen hau, euskal gizarteari gure inguruko baliabide hidrikoek eskaintzen dituzten balioa eta aukerak ezagutarazteko. Horretarako, hiritarrek itsaso, ibai eta urtegiak urarekin elkarreragin eta ekitaldi herrikoj, parte-hartzaile eta irekian familiartean eta lagunekin esku hartzeko aukeraz gozatzeko helburua ezarri zen. Acuatlon modalitatearen pareko proba bat, zeinetan oinezko lasterketa eta igeriketa bezalako diziplinak bateratzen baitziren. Hiru kirol-hitzordu antolatu ziren, Lurralde banatan, Hondarribian, Garaion eta Gorkizen.

## 7.3.8. CONAMA 2012

**E**rironka ekonomikoari iraunkortasunetik erantzuteko eta Espainia eta Latinoamerikako ingurumen-sektoreko batasunak finkatzeko helburuarekin garatu zen Madrilén, Garapen Iraunkorraren aldeko bi urtez behingo hitzordu garrantzitsu hau. Energia, biodibertsitatea, hondakinak, mugikortasuna, ura edo teknologia “berdeak” bezalako funtsezko gaiak jorratu ziren.

Eusko Jaurlaritzak Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategia, EcoEuskadi 2020, eta bere lehen urtean lortutako aurrerapenak aurkeztu zituen babesleak, laguntzaileak eta enpresak erakusgai jartzeko egokitutako standean. Haraino, URA-Uraren Euskal Agentzia eta Ihobe-Ingurumena Kudeatzeko Elkarte publikoa hurbildu, eta hainbat saiotan txostenak aurkeztu zituzten.

## 7.3.9. Euskadiko Urei buruzko informazio-sistemen aurkezpena



URAK SIAE (Euskadiko Uren inguruko Informazio Sistema) aurkeztu zien EAEn kokatutako uren jarraipenerako programak dituzten erakundeei, ekimen hori ezagutu eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatuz.

Euskadiko Uren informazio Sistemaren (SIAE) helburua ingurumen hidrikoaren egoeraren inguruko informazio sistema bat sortzea da. Horren bitartez hauek lortu nahi dira:

- URAK kudeatzen dituen jarraipen sareak eskaintzen duten informazioa bildu eta osatu.
- URAK lortutako informazioa lantzeko, zabaltzeko eta elkartrukatzeko bideak erraztea, eta lotura eskaini GIS korporatibora.
- Euskadin uraren kudeaketaz arduratzen ditzen hainbat erakundek ingurune hidrikoaren egoeraren inguruan sortzen duten informazioa batu.
- Erakunde hauek lortutako informazio guztiaren tratamendu eta ustiapena erraztu.
- Giza eta ekonomia baliabideak optimizatu eta arrazionalizatu.

## 7.3.10. Dibulgazio-jardunaldia: Zebra muskuilua EAEn



**A**tarian, Salburuko hezeguneen interpretazio zentroan, zebra muskuiluaren inguruko jardunaldia egin zen. Bertan espezie horrek gure herrialdean gaur egun duen egoera, azken urteetan izan duen eboluzioa eta etorkizunerako aurreikuspenak azaldu ziren. Horrekin batera, administrazioek espezie horren jarraipena egiteko eta hedapena mugatzeko azken urteotan aurrera eraman dituzten jarduerak ezagutarazi ziren.



A young girl with braided hair and a yellow hair clip, wearing a red sleeveless top, is filling a blue plastic jug at a public water tap. Water is flowing from the tap into the jug. The background is a blurred outdoor setting with green foliage. The image is framed by a blue circular graphic on the right side.

**7.4.**

**Nazioarteko  
lankidetzaz**

## 7.4. Nazioarteko lankidetzaz

2012. urtean zehar, nazioarteko sareekiko harreman zuzena eduki du Uraren Euskal Agentziak, lankidetzarako eta garapen iraunkorrerako duen konpromisoa betetze aldera.

### 7.4.1. URAREN parte-hartzea Europa eta mundu osoko Eskualdeetako Gobernue Sareetan (Encore eta nrg4SD)



Garapen Iraunkorrerako Eskualdeko Gobernuen Sarea (nrg4SD), eskualdeko gobernuak eta eskualdeko gobernuen elkarteak ordezkatzeko dituen irabazi asmorik gabeko nazioarteko erakundea da.

2002. urtean sortu zen, Johannesburgoko Mundu Gailurrean eta, gaur egun, 30 herrialdeetako 50 bat eskualdeko gobernu eta eskualdeko gobernuen 7 erakunde barne hartzen ditu. Bakarrik eskualdeko gobernuak ordezkatzeko dituen maila orokorreko garapen iraunkorraren arloko mundu-sare bakarra da. Bertan, Munduko eskualde-mailako garapen iraunkorra sustatzen da eta garapen iraunkorraren alorrean eskualdeko gobernuen ahotsa eta ordezkaria da nazioarte-mailan.

URAK, uraren arloko lantaldeak zuzendu zituen. Urteko Batzar Nagusietan esku hartzeaz gain, hitzaldi eta mintegietan ere esku hartu zuen, kideen artean informazioa, esperientziak eta praktika hobeen elkartrukea errazteko, zein Eskualdeko Gobernuak garapen iraunkorraren alde egiten dutena aitortu eta egin ahal dituzten erabaki edo elkarteak sustatzeko.



Eskualde-mailako garrantzia duten ingurumen-gai europarrez eztabaidatzeko 1993. urtean EB barruan sortutako eskualdeko ministroen eta lider politikoaren plataformak da. URA plataformak honen kide da eta 2012an Uraren eta Biodibertsitatearen gaikako taldeak zuzendu zituen. nrg4SD izenekoaren kasuan bezala, ingurunerik ahulenetan aplikatu daitezkeen praktika egokiak eta esperientziak elkartrukatzera zuzenduta dago atal bat.

2012an, konferentzia honetako hainbat bileretan esku hartu zuen URAK eta sarearen Batzorde Betearazleko kideak Euskal Herrian hartzeko aukera izan zuen.



Argazkiak: Alex Larretxi

## 7.4.2. PNUD eta ART/PNUD: Nazio Batuen Garapenerako Programak.



URAREN eta PNUDEREN arteko erlazioa elkarren artean sinatutako hitzarmenaren datza. Hitzarmen horren arabera, Euskadin biltzen den uraren kanonaren %5 ur-arloko lankidetzaproiektuetara zuzenduko da.

Momentu honetan bi proiektu daude martxan PNUD eta ART/PNUD erakundeekin.

PNUDEN kasuan, Liberian, gobernuari arlo teknikoan eta antolaketan laguntzeko. Beharrak ugariak dira, besteak beste: uraren barnean kokatzen diren eragileen organigrama argitzea edo hornidura eta saneamendu sareak egituratzeaz arduratuko diren teknikariak trebatzea.

2009-2010 urteetako Uraren Kanonetik 300.000€ bideratu dira proiektu honetara. 2012an, hitzarmenaren jarraipen zehatza egin zen, eta horretarako, URAREN ordezkariak Liberiara joan eta Liberiako ordezkariak bat Euskadira etorri zen.



ART/PNUD-ekin, berriz, Salvadorren egingo da proiektua, hain zuzen ere To-rola ibaiaren arroan. Uraren arloan trebakuntza eta prestakuntza jorratuko da, batez ere. Kasu honetan, ura baliabidea berreskuratzeko azpiegitura berreskuratzea da helburua, horrela 400 familiak horniketa jasoko dute, hots, 2.000 pertsonak inguru, eta etorkizunean 4.000 pertsonara heltzeko ezinbesteko azpiegitura izango da. Salvadorreko proiekturako 2011. urteko kanoneko 150.000€ euro erabili ziren. 2012.ean, Salvador bisitatu zen hitzarmenaren jarraipena egiteko.



Proiektu horiez gain, URAK nazioartean Milurteko Helburuen 7c helburuak betetzeko %1aren alde egiteko PNUDK Genevan biltzen duen Gidaritza Batzordean esku hartu zuela nabarmendu behar da. Marseillan izandako Uraren Forumean helburu horrekin antolatutako mintegi eta hitzaldietan esku hartu URAK, eta agiri orokorra sortu dute. Agiri hori eztabaidatzen ari da, une honetan, Uraren %1eko tasa solidarioa (GWS) Global Water Solidarity, nazioarteratzeko Batzorde eta Idazkaritzan esku hartzen duten eragile guztien artean adosten amaitzeko.

### 7.4.3. Green Week

2012. urtean, "Green Week" foroan esku hartu zuen Uraren Euskal Agentziak, Bruselan, uren politikez arduratzen diren mundu osoko zientzialari, enpresa pribatu eta erakunde publikoen artean ikuspegiak eta esperientziak elkartrukatzeko. Inguruneari buruzko europar konferentziarik handietan honako lelo honen menpe garatu zen: «Uraren erronka – tanta guztiak dira garrantzitsuak». Eta 3000 parte-hartzaile bildu zituen hiru egunez, urari buruzko gaien inguruan eztabaidatzeko.

### 7.4.4. Río + 20

URAK Rio de Janeiroko (Brasil) munduko Gailurrean esku hartu zuen Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera, eta horretan, Gobernu Kontseiluak ekainaren 5ean onartutako Adierazpen instituzionala aurkeztu zuen Rio+20ko konferentzia honen aurrean. Adierazpen horren lanketan Euskadiko 4.000 hiritarrek baino gehiago esku hartu dute.